

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Alkatearen dekretua, bere eginkizunak eskuordetzeko

2016ko apirilaren 30etik maiatzaren 7ra (bi egunak barne) udalerritik kanpo egotea daukat aurreikusita.

Idoia Arenaza Saenz del Burgo da Kanpezuko Udaleko lehen alkateordea.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan, eta Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak (azararen 28ko 2568/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) 47. artikuluan (44. artikuluko 1. eta 2. paragrafoekin lotuta) xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Ni kanpoan izango naizen bitartean, nire alkate eginkizun guztietan Idoia Arenaza Sáenz del Burgo zinegotzi eta Kanpezuko Udaleko lehen alkateordeak ordezkatuko nau, alegia, 2016ko apirilaren 30etik maiatzaren 7ra bitartean.

Bigarrena. Dekretu honek 2016ko apirilaren 30etik aurrera izango du indarra, eta ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena. Hurrengo osoko bilkuran eman dakiola udalbatzari ebazpen honen berri.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko apirilaren 14a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO